
Eusko Jaurlaritza

Justizia Saila

ElhuyarTTS

Moodle-entzako TTS

plugina

(eskuliburua)

TTS
eus

1. Moodle-n ElhuyarTTS euskarazko TTS plugina instalatzeko pausoak



Elhuyarren TTS-aren plugin-a Moodle-n instalatzeko, bi osagai instalatu behar dira, Atto plugin bat eta iragazki bat. Horretarako, Moodle-n bi karpeta kopiatu behar dira. Plugin-aren iturburu kodea osatzen duen moodle-tts.zip fitxategia deskonprimituta ateratzen den karpeta barruan *plugin* eta *filter* karpetak aurkituko ditugu. Karpeta bakoitzaren **barrukoa** (elhuyartts karpeta) honako bidean kopiatu behar da:

- Plugin-aren kasuan: {moodle-karpeta}/lib/editor/atto/plugins/
- Iragazkiaren kasuan: {moodle-karpeta}/filter/

Karpeta hauek kopiatu ondoren, Moodle plataformako hasiera orrira joaten bagara, Moodle-k plugin eta iragazki berriak detektatuko ditu.

Pluginak aztertu

Orri honek eguneraketa egin bitartean zure arreta eská dezaketen pluginak erakusten ditu, hala nola instalatuko diren pluginak, eguneratuko direnak, falta direnak... Egunera daitezkeen pluginak ere erakusten dira. Pluginen eguneraketak eskuragarri dauden konprobatzea gomendatzen da, eta halakorik egotekotan iturri-kodea eguneratzea gomendatzen da Moodle eguneratzen jarraitu aurretik.

Egiaztatu zein eguneraketa dagoen eskuragarri

Pluginek zure arreta eskatzen dute

Utzi bertan behera instalazio berriak (1) Pluginek zure arreta eskatzen dute (2) Plugin guztiak (380)

Pluginaren izena / Direktorioa	Oraingo bertsioa	Bertsio berria	Behar du	Iturburu / Egoera
Testu-iragazkiak				
Elhuyar TTS iragazkia <small>/filter/elhuyartts</small>		2016052300	• Moodle 2016051900	Gehigarria Instalatu egingo da Utzi bertan behera instalazio hau
Atto HTML editorea / Atto pluginak				
Elhuyar TTS <small>/lib/editor/atto/plugins/elhuyartts</small>		2018101100	• Moodle 2013110500	Gehigarria Instalatu egingo da

Berriz kargatu

Eguneratu Moodle datu-basea orain

Eguneratu Moodle datu-basea orain botoia sakatu eta plataforma osagai berriein eguneratuko da.

Bertsio berrira eguneratzen

filter_elhuyartts

Ondoi

atto_elhuyartts

Ondoi

Jarraitu

Aurreko pantaila honetan, instalazioa ondo burutu dela ikusiko da eta Atto plugin berria konfiguratzeko, *Jarraitu* botoia sakatu behar da.

Elhuyar

Beheragoko ezarpenak Moodle-ren azken eguneraketan gehitu ziren. Egin beharrezko aldaketak berezko baloreetan eta ondoren sakatu orriaren bukaerako "Aldaketak gorde" botoiari.

Ezarpen berriak - Elhuyar TTS hobespenak

Hizkuntza <small>atto_elhuyarits hizkuntza</small>	<input type="text" value="Euskara"/>	Berezko balorea: Euskara
	Lehenetsitako hizkuntza aukerak)	
Ahotsa <small>atto_elhuyarits generoa</small>	<input type="text" value="Emakumezkoa"/>	Berezko balorea: Emakumezkoa
	Lehenetsitako ahots aukerak	
Audio abiadura <small>atto_elhuyarits abiadura</small>	<input type="text" value="93"/>	Berezko balorea: 93
	Lehenetsitako audioaren abiadura (tarrea 40 - 160)	
Audio formatua <small>atto_elhuyarits audioformatua</small>	<input type="text" value="MP3"/>	
	Lehenetsitako audio formatu aukerak	
Itxura <small>atto_elhuyarits itxura</small>	<input type="text" value="Audio-erreproduzitzaila"/>	Berezko balorea: Audio-erreproduzitzaila
	Lehenetsitako itxura aukerak	
Erabiltzailearen kodea <small>atto_elhuyarits erabiltzailekodea</small>	<input type="text" value="1234"/>	Berezko balorea: 1234
	Elhuyarrek emandako erabiltzaile kodea	

[Gorde aldaketak](#)

Pantaila honetan, plugineko hainbat ezaugarri konfiguratu daitezke. Pantaila honetako ezarpenak beste edozein momentutan alda daitezke ezarpenetara joanez.

Irudian ikus daitekeen bezala, dagoeneko, ezaugarri bakoitzak esleituta dauka lehenetsitako balio bat. Baina **derrigorrezkoa da erabiltzailearen kodea aldatzea**, bestela TTS-ak ez du funtzionatuko. Erabiltzaile kode hori Elhuyarrek emandako kodea da, bere TTS zerbitzua erabili ahal izateko. Ez badaukagu, Elhuyarri eskatu beharko zaio.

Beste ezaugarriak berriz, nahi bezala konfiguratu daitezke eta beraien esanahia honakoa da:

- Hizkuntza: Defektuz sortuko den audioaren hizkuntza.
- Ahotsa: Audioan, defektuz gizonezko edo emakumezko ahotsa erabili nahi den.
- Abiadura: Hizketaren defektuzko abiadura.
- Audio formatua: MP3, OPUS edo OGG formatuko audioa sortu nahi den.
- Itxura: Esteka edota audio erreproduzizailua sortu nahi den.

Lehenetsitako ezaugarriak ezarri ondoren *Gorde aldaketak* botoia sakatuko dugu.

Ondoren, plugina Atto tresna-barran agertzeko konfigurazioa gehitu behar da. Horretarako honako pantaila ireki behar da:

Gunearen kudeaketa > Pluginak > Testu-editoreak > Atto HTML editorea >

Atto tresna-barraren ezarpenak

Izena	Bertsioa	Konfiguratu tresna-barra	Ezarpenak	Desinstalatu
Erabilerraztasun-egiaztatzaila	2016052300	accessibilitychecker		Desinstalatu
Pantaila-irakurlearen laguntzaila	2016052300	accessibilityhelper		Desinstalatu
Testu-lerrokadura	2016052300	align		Desinstalatu
Atzeko planoaren kolorea	2016052300	backcolor		Desinstalatu
Lodia	2016052300	bold		Desinstalatu
Txertatu karakterea	2016052300	charmap		Desinstalatu
Ezabatu formatua	2016052300	clear		Desinstalatu
Erakutsi/ezkutatu aurreratu botoiak	2016052300	collapse	Ezarpenak	Desinstalatu
Elhuyar TTS	2018101100	elhuyartts	Ezarpenak	Desinstalatu
Aurpegiera	2016052300	emoticon		Desinstalatu
Ekuazio-editorea	2016052300	equation	Ezarpenak	Desinstalatu
Testuaren kolorea	2016052300	fontcolor		Desinstalatu
HTML	2016052300	html		Desinstalatu
Irudia	2016052300	image		Desinstalatu
Koskatu	2016052300	indent		Desinstalatu
Etzana	2016052300	italic		Desinstalatu

Pantaila honen azpialdean, tresna-barraren konfigurazioa ikus daiteke. Eta bertan, *elhuyartts* elementua gehitu behar da. Adibidez, *other* barraren barnean txertatu dezakegu:


Goiko taulako aldaketak automatikoki gordetzen dira.

Konfiguratu tresna-barra

editor_atto | toolbar

```
files = image, media, managefiles
style2 = underline, strike, subscript, superscript
align = align
indent = indent
insert = equation, charmap, table, clear
undo = undo
accessibility = accessibilitychecker, accessibilityhelper
other = html, elhuyartts
```

Berriz ere *Gorde aldaketak* botoian sakatu. Aurrerantzean, Atto editorean, Elhuyarreko TTS-ari dagokion *elh* botoi berria ikusi beharko litzateke.



Behin plugina instalatuta dagoela, azkenengo pausoa iragazkia aktibatzea izango litzateke. Horretarako honako orrialdea ireki eta bertan iragazkia aktibatu behar da:

Gunearen kudeaketa > Pluginak > Iragazkiak > Kudeatu iragazkiak

Aginte-panela > Gunearen kudeaketa > Pluginak > Iragazkiak > Kudeatu iragazkiak Aktibatu blokeen edizioa

NABIGAZIOA

Aginte-panela

- Gunearen hasiera
- ▶ Guneko orriak
- ▶ Ikastaroak

KUDEAKETA

- ▼ Gunearen kudeaketa
 - ⚙ Jakinarazpenak
 - ⚙ Erregistroa
 - ⚙ Funtzio aurreratuak
 - ▶ Erabiltzaileak
 - ▶ Ikastaroak
 - ▶ Kalifikazioak
 - ▶ Gaitasunak

Kudeatu iragazkiak


Iragazi	Aktiboa?	Ordena	Aplikatu honi	Ezarpenak	Desinstalatu
MathJax	Piztuta	↓	Edukia	Ezarpenak	Desinstalatu
Automatikoki lotutako jarduerak	Piztuta	↑ ↓	Edukia		Desinstalatu
Multimedia-pluginak	Piztuta	↑ ↓	Edukia		Desinstalatu
Elhuyar TTS iragazkia	Piztuta	↑	Edukia	Ezarpenak	Desinstalatu
Idazketa aljebraikoa	Desgaituta		Edukia		Desinstalatu
Hitzen zentsura	Desgaituta		Edukia	Ezarpenak	Desinstalatu

2. TTS-aren erabilera adibidea

TTS-aren bitartez audioak sortzeko, Atto editorea ireki behar da. Editorean, *elh* botoia sakatu eta sortu nahi den audiorako konfigurazioa ezarri behar da.

Adibide honetan, post batean bi audio sortuko dira. Lehenengo adibidean esteka bat sortuko da eta bigarrenengan audio erreproduzigailu bat.

Lehenengo kasuan, entzun nahi den testua testu kutxan sartu eta itxura atalean, "Esteka" hautatuko da. *Txertatu* botoia sakatu ondoren, emakumezko ahotsarekin, mp3 formatuko euskarazko audio bat sortuko da. Amaieran, sortu berri den audioa esteka gisa bistaratuko da.



Hobespenak ezarri

Testua

Testu hau entzungo da estekan klik eginda

Hizkuntza Euskara

Ahotsa Emakumezkoa Gizonezkoa

Abiadura 93

Audio formatua MP3

Itxura Esteka


Ados

Bigarren kasurako sortuko den audioa, berriz, hizkuntza eta formatu berdinean sortuko da baina gizonezko ahotsarekin eta erabiltzaileak audio erreproduzigailu bat ikusiko du.

Atto editorean audio bat txertatzen den bakoitzean, honelako testu motak azalduko dira:

```
{ELHUYARTTS: source=ahots_sintesia_moodle/?testua=Testu%20hau%20entzungo%20da%20estekan%20klik%20eginda&hizkuntza=eu&response=mp3&gender=F&speed=93&kodea=1234, text=Testu hau entzungo da estekan klik eginda, type=link}
```

Sortutako audioren bat aldatu nahi izanez gero, audio horri dagokion ELHUYARTTS testua hautatu eta *elh* botoia sakatu behar da. Modu honetan, aurrez sortutako audio konfigurazioa editatzeko pantaila azalduko da.



Elhuyarreko TTSA erabiltzeko pausoak hauek dira:

- "elh" botoia sakatu.
- Testu kutxan idatzi entzun nahi den testua eta nahi diren aukerak hautatu.
- Txertatu botoia sakatu

1.- Esteka baten adibidea:
 {ELHUYARTTS: source=ahots_sintesia_moodle/?testua=Testu%20hau%20entzungo%20da%20estekan%20klik%20eginda&hizkuntza=eu&response=mp3&gender=F&speed=93&kodea=1234, text=Testu hau entzungo da estekan klik eginda, type=link}

2.- Erreproduzigailu baten adibidea:
 {ELHUYARTTS: source=ahots_sintesia_moodle/?testua=Eta%20beste%20hau%20audio%20erreproduzigailuarekin&hizkuntza=eu&response=mp3&gender=M&speed=93&kodea=1234, type=audio}


Adibidearekin jarraituz, post-ean bi audioak txertatu eta *Aldaketak gorde* botoia sakatu ondoren, erabiltzaileak post-a honela ikusiko du.



Adibidea
 admin admin - astelehena, 2018(e)ko azaroaren 26(e)an, 10:48(e)an Gune honetako guztientzat

Elhuyarreko TTSA erabiltzeko pausoak hauek dira:

- "elh" botoia sakatu.
- Testu kutxan idatzi entzun nahi den testua eta nahi diren aukerak hautatu.
- Txertatu botoia sakatu

1.- Esteka baten adibidea:
 Testu hau entzungo da estekan klik eginda 

2.- Erreproduzigailu baten adibidea:


[Editatu](#) | [Ezabatu](#) | [Lotura iraunkorra](#)
 [Aldatuta: asteartea, 2019(e)ko urtarrilaren 29(e)an, 15:23(e)an]
 ▶ Iruzkinak (0)

Goiko irudian ikus daitezkeen bezala, esteka bat eta audio erreproduzigailu bat sortu dira. Erreproduzigailuaren "Play" botoian edo estekan klik eginez gero TTS-aren audioa entzungo da.